

✿ Hitz eta Pitz ✿

Pau Joan Hernández



JON SUAREZEK ITZULITA

Pau Joan Hernández Bartzelonan jaio zen 1967an, eta gaur egun Bigues i Riells-en bizi da. Oso gaztetatik aritu izan da literaturan eta, hemezortzi urte zituela argitaratu zuen gazteentzako lehen nobela: Tot et serà pres. Lan errealista, eutanasia duena hizpide eta, hogeita sei argitalpen baino gehiagorekin, bere arrakastarik handiena bihurtu dena. Gerora, ordea, bere lana narratiba fantastikoaren bideetan ibili da gehiago, errealitatea eta fantasia konbinatuz. Gaur egun sorkuntza literarioan, literatur kritikan (Avui egunkarian) eta itzulpengintzan (gaztelania, euskara, frantsesa eta galizieratik) dihardu lanean.

Hogei liburu baino gehiago itzuli dituzu euskaratik katalanera. Zure ustez, zein irizpide erabiltzen dituzte argitaletxeek liburuak euskaratik katalanera itzultzeko?

Argitaletxeen mundua pixka bat ezagutzen dugun guztiok badakigu argitaletxe jakin batek Estatuko lau hizkuntzetan Haur eta Gazte Literaturako bildumak izateak ez duela bermatzen (ezta errazten ere) hizkuntza batean argitaratutako liburuak besteetara itzultzea. Izan ere, sarritan bildumak guztiz iragazkaitzak



dira, eta ez da erraza ezta gaztelaniara itzultzea ere. Beste modu batera esanda: ez dago inolako fabore traturik, eta itzuli izan diren lanak beren berezko kalitateagatik lehenetsi dira, beste euskal lan batzuk argitaletxe katalan independenteez itzuli dituzten era berberean.

Zein harrera izan dute Katalunian zuk itzulitako HGL liburuek eta, oro har, euskal liburuek?

Esan dezagun aurretik harrera izan behar duena lana bera dela, ez horren itzulpena. Itzultzailearen funtzioa testuaren atzean ezabatzea da hain zuzen ere; xede hizkuntzan ari dena egilea izan dadin lortu behar du itzultzaileak. Itzulpenen zerrenda ikustea aski da konturatzeko munduko edozein lekutan bakarrik ibiltzeko modukoak direla berez. Honi gehitzen badiogu euskal kulturak Katalunian beti eragin duen begikotasuna, ulertuko dugu irakurleen eta kritikaren itzulpenekiko harrera ona. Hala ere, uste dut izan direla zenbait lan merezi duten oihartzun dena jaso ez

dutenak. Esate baterako, asko poztuko ninduke hemengo antzerki amateurreko talde askotakoren batek Yolanda Arrietaren *Badago ala ez dago* lan zoragarria antzeztuko balu.

Ezagutzen duzun heinean zer nolako maila ikusten duzu Euskal Haur eta Gazte Literaturan? Zein eskasia ikusten diozu?

Itzultzailearentzako baino kritikariarentzako galdera da hori, itzultzaileak ez baitu ziurrenik ikuspegi orokorra izango. Nire esperientzian oinarrituta ziurta dezakedan bakarra da inoiz ez dudala euskal HGL-ko liburu aspergarri, arrunt, txepel edo txarrik irakurri. Hau ez da halako libururik ez dagoela ziurtatzeko oinarria, baina egia da ezin dudala gauza bera esan lanean erabiltzen ditudan beste lau hizkuntzekiko.

Zer ekar diezaioke euskal liburugintzak Katalunian?

Uste dut euskal haur literaturak katalanari eman diezaiokeen ezer baldin badago, egoera tragikoetara hurbiltzeko bide bezala umorearen nolabaiteko tratamendua dela –batzuetan baita umore beltzarena ere–. Ez dut irudikatzen egile katalanik, esate baterako, Txilikuk *Kikik koko nahi du* lanean lortzen duen umore eta dramaren arteko oreka miragarria lortzen –umoreak barrengarri eta dramak dramatiko izateari utzi gabe–. Helduen literaturan, adibidea, jakina, *SPrako tranbia* izango litzateke.

Euskal HGL ezagutzen da Katalunian ala idazle jakin batzuk bakarrik ezagutzen dira?

Idazle bakan batzuk ezagutzen dira, baina gauza bera esan liteke beste kulturekiko ere.

Espainiako sari nazionalen hizkuntza txiki-tako lan batzuk nabarmentzen dira, baina inortxo ere ez da obra horietaz interesatzen: aukera alferrik galdua ote?

Kopuruz handiak diren kulturek mesfidan-

tza dute gureak bezalako kultura arraroetako egileekiko (eta jendearekiko). Egile katalan edo euskaldun bat egile espainiartzat hartua izan dadin, pitzadurarik gabeko espainiartasuna eta atxikimendu haustezina erakutsi behar izan ditu aurretik, katalana edo euskalduna den guztiarekiko espainiarrek berek sentitzen dutena baino gorroto patologiko askoz ere handiagoa erakutsi behar du. Eta sari nazional espainiarrak kritikaren eta administrazioaren borondate onez beteta dauden arren (barrutik ezagutu ditut eta ziurta dezaket hori), ezin dute errealitate triste honen aurka jo.

Zalantzarik gabe, katalanera euskal liburu gehien itzuli duen itzultzailea zara. Zerk piztu zuen euskararekiko zure interesa? Zer moduzko esperientzia izan da euskaratik itzultzearena?

Modurik xumeenean esateko, jakingura hutsez hasi nintzen euskara ikasten eta laster maitemindu nintzen hizkuntzarekin. Filologia Katalana ikasten ari nintzen Bartzelonako Unibertsitatean Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean Euskal Hizkuntza

eta Hizkuntzalaritzako departamentua inauguratu zenean. Lehenengo urtean matrikulatu nintzen, batetik jakinguraz eta bestetik erromantzearenak ez bezalako egitura zeharo ezberdinak dituen hizkuntza batekiko erromanista batek duen interes zientifikoagatik. Hitz egiteko era «normalik» ez dagoela eta beste hizkuntza batzuentzat ezinbestekoak diren elementurik gabe ere (euskarari dagokionean, generoa, numeroa eta sintagmaren barne komuntadura) oso ondo konpontzen diren hizkuntzak badirela zuzenean egiaztatu ahal izatea... Ez dago hizkuntzalari baten ikuspuntua gehiago irekiko duen beste ezer.

Horrela hasi zen kontua, baina planteamendu hain zientifiko hau denbora laburrez izan zen hizkuntzarekiko nuen interesaren zergatia. Ezagupenak ez ezik pasioa eta irrika ere transmititzen bazekien irakasle batekin egin nuen topo; eta jakina da unibertsitate munduan sentimendu horiek ez direla oso ohikoak. Hiru urtez aritu nintzen euskara ikasten, nire kontutik gehitu nituen ezagupenak eta, ordurako lan dezente nuenez argitaratuta eta liburu batzuk itzuliak





nituenek, laster eskaini zidaten euskaratikako lehen itzulpena: Joan Mari Irigoienek *Babilonia* hain zuzen ere. Irudika dezakezue itzulpen harekin sufritu nuena... baina irrikaz beteriko gazte garenean ezinezkorik ez dagoela iruditzen zaigu. Eta hura izan zen hasiera.

Euskaratik katalanera itzultzen zuen bakarria izatearen ohore arraroa izan dut urte dezentetan zehar. Egoera hori, zorionez, aldatu egin da. Baina behin baino gehiagotan izan da larrigarria, ez baitut nire burua, ezta gutxiago ere, itzultzaile ontzat: praktika ezagatik ia hitz egiten ez dudan hizkuntza batetik itzultzen dut, beraz, hiztegiaren menpe ibili behar dut eta itzuli aurretik arreta handiz aztertu edozein esaldi zail samarren gramatika. Itzuliko dudan edozein libururen aurrean dudan lehen sententzia ezer ez ulertzearena da eta ez dudala lortuko iruditzen zait. Poliki-poliki ikasten dut, etengabeko beldurra diodalarik akatsari. Ez ditut, ordea, galdu hasi nintzeneko maitasuna eta berotasuna.

Bestalde, badituzu zure bi liburu euskarara itzuliak: *Stukaren itzala* eta *Izuaren eskifaia*. Nolako izan da esperientzia? Izan al zinen euskal itzultzaileekin harremanetan? Zuzendu al zenituen probak?

Luxuzko itzultzaileak izatearen zorrea izan dute nire bi liburuek: Joxan Elosegia eta Karlos del Olmo. Itzulpenak, zer esanik ez, bikainak izan dira. Eta ez litzaidake inoiz itzulpen bat berrikustea bururatuko: honi dagokionean oso harroa naiz, eta itzultzailearen lanarekiko errespetu falta iruditzen zitzaidan.

Euskarara liburu dezente itzultzen dira katalanetik Haur eta Gazte Literaturan. Euskaratik katalanera, ordea, oso gutxi. Zergatik ote?

Ez dakit erantzuna saihestea ote den, baina inoiz ez ditut ulertu argitaletxeen mekanismoak zentzu honetan, ez itzultzaile bezala, ez egile bezala, ezta jatorrizkoen irakurle bezala ere. Nik neuk badut nobela bat katalanez laurogei mila ale saldutakoa eta ez dena beste inongo hizkuntzataraz itzuli.

Haur eta Gazte Literaturan ere idazle periferikoen kuotak ote daude? Helduenean argi dago, Rivas eta Suso de Toro, Monzó, Atxaga (bakarrik kasik), baina haur eta gazteenean?

Ez dut inoiz kuotatan sinetsi, ezta dirulaguntzatan ere; ez dut inoiz ulertu zer den kultura «periferikoen» zera hori. Zerekiko periferikoak? Europarekiko baldin bada, aski da mapari begiratzea izendapen hori barregarria dela ikusteko. Espainiarekiko baldin bada, azken 150 urteetako espainiar literaturako egile aipagarrien jaiolekuei begirada azkar bat egiteak ikusaraziko digu gutxi direla, oso gutxi, Gaztelan jaiotakoak. Horrela, asko pentsatu gabe, orain esango nuke andaluziarrek irabazten dutela argi eta garbi. Eta, geografikoki, Katalunia edo Euskal Herria bezain periferikoa da Andaluzia. Kontuz hitzekin, pozoituta egon daitezke eta: Espainia ez da Gaztela,

ezta mundua ere Gaztela. Ez gaitezen saia kontu serioez aritzen politikatik ateratako hitzekin.

Zure ustetan irakurleak errezeloz begiratzeko itzultitako liburuari ala originala izango balitz bezala hartzen du?

Nik pentsatzen nuen irakurlea egilearen ize-naz ohartzeko dela eta inoiz ez itzultzailearenaz, baina azkenaldian liburuzain eta liburusaltzaile batzuek hain sutuki defendatu didate kontrakoa hasi bainaiz sinesten badirela «beren konfidantzazko» itzultzaileak dituzten irakurleak. Hori bai, sinetsita nago literatur itzultzailea futbol epailea

bezalakoa dela: ona denean, ez dugu dagoenik nabaritzen.

Beti Estatu espainiarreko merkatuari/ei begira... Zer nolako harremana du HGL katalanak Frantziakoarekin? Ba al dago elkar itzultzeko interesik?

HGL frantziar asko irakurri dut argialetxe-entzako irakurketa txostenak egiteko, eta uste dut dezente ezagutzen dudala: oro har (barkatu hain argia izatea), hain da txarra ez baitago tratua izaterik.

SARIAK

- 1986: Amadeu Oller gazte poesia sarian finalista *Si nego el bosc...* lanagatik.
- 1987: Guspira poesia saria *D'un quadern de viatge* lanagatik.
- 1987: Martí Dot poesia saria *Joc de daus* lanagatik.
- 1987: Enric Valor haur narratiba saria *Horts de porteria* lanagatik.
- 1989: Poesia Zientifiko eta Teknologikoa saria *Assaig introductorio a l'estudi de la geometria dels sòlids de revolució* lanagatik.
- 1991: Josep Munteis poesia sarian finalista *Camarades grecs* lanagatik.
- Mobius Internacional saria *Les aventures d'Ulisses* lanagatik.
- 1999: Crítica Serra d'Or saria *L'ombra del Stuka* lanagatik.
- 2000: Institució de les Lletres Catalanes-en saria *L'ombra del Stuka* lanagatik.
- 2000: Ramon Muntaner saria *El pic de la Dama Morta* lanagatik.
- 2004: Edebé Juvenil saria *La tripulació del pànic* lanagatik.

LANAK

- Poesia:**
Si nego el bosc..., Bartzelona, Llibres del Mall, 1986.
Joc de daus, Bartzelona, Columna (Crema; 12), 1988.
Camarades grecs, Bartzelona, Columna (Crema; 86), 1992.
- Haur eta Gazte narratiba:**
Història fosca, Bartzelona, Pòrtic (El brot jove; 19), 1991.
El projecte Ictivela, Bartzelona, Pòrtic (El brot jove; 25), 1992.
Aterratge a Ostadar, Bartzelona, La Galera (Grumets; 60), 1993.
Cordada de rescat, Bartzelona, Columna (Columna Jove; 57), 1995. (2. ed.).
Quan el cerç bufa al migdia, Bartzelona, Empúries (L'Odissea; 83), 1995.
SOS a sis mil metres, Bartzelona, La Galera (Cronos; 13), 1996 (5. ed.).
El problema amb els ferivals, Bartzelona, L'Arca (Tren de fusta; 15), 1996.
Porta falsa, Bartzelona, Empúries (L'Odissea; 24), 1997 (11. ed.).

- L'ombra del Stuka*, Bartzelona, Empúries (L'Odissea; 98), 1998.
- Joana i el sis vint-i-cinc*, Bartzelona, Edebé (Tucan; 72), 1998.
- Tàrik de la gran caravana*, Bartzelona, Cadí, 1999.
- Tot et serà pres*, Bartzelona, Empúries (L'Odissea; 7), 2000 (18. ed.).
- Els cosacs de l'autopista*, Bartzelona, Empúries (L'Odissea; 109), 2000.
- Llegendes de Catalunya*, Bartzelona, Empúries (L'Odissea), 2000.
- El pic de la Dama Morta*, Bartzelona, Empúries (L'Odissea, 114), 2001.
- El presoner del Casal del Diable*, Bartzelona, Cruïlla (Vaixell de Vapor), 2002.
- La tripulació del Pànic*, Bartzelona. Edebé (Periscopi; 67), 2004.
- El mussol i la forca*, Bartzelona, Edebé (Periscopi; 69), 2004.
- El misteri de les quatre punyalades*, Bartzelona, Columna, 2005.
- Narratiba laburra:**
- Una selva al replà*, Alzira, Bromera (Els nostres autors; 17), 1992 (3. ed.).
- Euskarara itzuliak:**
- Stukaren itzala*. Donostia, Elkarlanean (Branka; 79), 2000. (Itzultzailea: Joxan Elosegí) .
- Izuaren Eskifaia*, Sondika, Giltza (Periskopia; 12), 2004. (Itzultzailea: Karlos del Olmo).
- Itzulpenak (euskaratik):**
- Babilònia*, Joan Mari Irigoien. Alzira, Bromera, 1992.
- Poemes*, Felipe Juaristi. Bartzelonako Poesia Jaialdia, 1994.
- Quaderns secrets*, Mariasun Landa. Bartzelona, Edebé, 1994.
- L'home sol*, Bernardo Atxaga. Alzira, Bromera, 1995.
- Una bicicleta en vaga*, Mariasun Landa. Bartzelona, Grijalbo Mondadori, 1995.
- Poemes*, Juan Mari Lekuona. Bartzelonako Poesia Jaialdia, 1996.
- Amb mi*, (single) Gozategi. Elkarlanean, 1997.
- Poemes*, Amaia Iturbide. I Recital de Poesia Ibèrica de Granollers, 1998.
- L'herència de les bruixes*, Yolanda Arrieta Malaxetxebarria. Bartzelona, Cadí, 1999.
- Aquells cels*, Bernardo Atxaga. Bartzelona, La Magrana, 2000.
- Per fi la Magali ja ho sap*, Patxi Zubizarreta. Bartzelona, Barcanova, 2000.
- Un traductor a París*, Bernardo Atxaga. Bartzelona, La Magrana, 2000.
- Contes d'Obaba*, Bernardo Atxaga. Bartzelona, La Magrana, 2001.
- La bruixa i el mestre*, Mariasun Landa. Bartzelona, Barcanova, 2001.
- Les botes vermelles*, Karlos Linazasoro, Bartzelona, Barcanova, 2001.
- Un elefant amb cor d'ocell*, Mariasun Landa. Bartzelona, Barcanova, 2001.
- Jo, me'n vaig*, Mariasun Landa. Bartzelona, Cruïlla, 2002.
- La balada d'Inesa*, Hasier Etxeberria. Bartzelona, La Galera, 2002.
- L'anell d'en mides*, Patxi Zubizarreta. Bartzelona, Baula, 2003.
- En Kiki vol xocolata!*, Txiliku. Bartzelona, Barcanova, 2003.
- Un tramvia a SP*, Unai Elorriaga. Bartzelona, Proa, 2003.
- El fill de l'acordionista*, Bernardo Atxaga. Bartzelona, Ed. 62, 2004.
- El mitjó suïcida*, Mariasun Landa. Bartzelona, Barcanova, 2004.
- Un cocodril sota el llit*, Mariasun Landa. Bartzelona, Barcanova, 2004.
- Veus paral-leles. Pirineoak-Pirineus, d'una riba a l'altra*, askoren artean. Bartzelona, Re&ma12, 2004.
- La xola i l'angelet*, Bernardo Atxaga. Bartzelona, Cruïlla, 2005.